

## JESUS ETA NIKODEMO

1

Jakintsua ta agintaria  
Nikodemo agurea,  
baekuan Jesus nor zan ikusi  
ta ezagutu-gurea.  
Hain jainkozale zana  
doa Jesusengana,  
horra bere ardurea:  
“Zu al zaitugu etortzekoa  
dan Salbatzaile gurea?”

3

Bat jaiotzatik hasita ta gora  
hiltzen doa egunero,  
zelan daiteke barriro jaio  
behin aguratu ezkerro?  
Amaren sabelera  
joan behar atzera,  
eta handik jaio gero?  
Norentzat dira Zuk dakartzuzan  
erreinu eta jenero?”

5

“Begira Aitak mundu honeri  
izan deutson maitasuna:  
Bere Semea emoteraino,  
hau bihotz-haunditasuna!  
Berak salbatu gaitu,  
ez dau inor epaitu;  
hau benetako Laguna!  
Hauxe bihotzez sinistea da  
bihotz-barritzen gaituna”.

2

“Bai, pozgarria da, Nikodemo,  
gaurko zure jakin-mina,  
baina bizira birjaio ezik  
hori bai dala ezina!  
Gizona naz arpegiz,  
Jainko-Semea egiz,  
bardina dan ezbardina...  
Hau ulertuko zeunke benetan  
ai, birjaioko bazina”!

4

“Nire Erreinuan sartzea ez da  
gizonaren meritua,  
hori lortzeko behar da egon  
bihotzetik barriztua.  
Gizonak bai ikusi,  
baina Aitak erakutsi  
Nigan dagon sekretua.  
Berak nahi dauan arek hartzen dau  
Aitaren Espiritua”.

6

Egia da ta, ezin ulertu  
ez naz hortarako gaia,  
eta Zeuk, Jauna, ezarri dozu  
nigan Zeu ikusi-nahia.  
Barriztu Zeuk bihotza  
ta prestau birjaiotza,  
dana da zure dohaia.  
Noizbaiten dastau daidala zure  
maitasunezko eztaia!